



UNIBERTSITATE-BEKEN ESKAERA AURKEZTEARI BURUZKO OHIKO GALDERAK 2020-2021 IKASTURTEA

Zein da nire solaskidea nire zalantzak argitzeko?	1
Internet-eko zein software /nabigatzaile erabili behar dut?	1
Zein erabiltzaile eta pasa-hitz erabili behar ditut	2
Nola funtzionatzen du BakQ-ek?.....	2
Nola lor dezaket BakQ?	2
BakQ badaukat, non eta nola egin behar dut eskaera?	3
Eskaera egiten ari naiz, baina ez daukat nahitaezko dokumentu guztiak. Amaitu dezaket?	4
On-line eskaera betetzen ari naiz, baina arazo teknikoak ditut. Norengana jotzen dut?.....	4
Nor sartu behar dut nire elkarbizitza-unitatean?	4
Senideak elkarbizitza-unitatearen erlaitzean altan ematen saiatzen ari naiz, baina akatsa ematen du eta ezin ditut sartu.....	4
Ez ditut matrikulatuta nagoen ikasketak aurkitzen.....	5
Eskaera bukatu eta izenpetu eta entregatzeko izenpetu dut, baina datu inportanteren bat aldatu nahi dut. Zer egin behar dut?.....	5
Zer dokumentu aurkeztu behar ditut beka-eskabidean?.....	6
Zer epe daukat eskabidea aurkezteko?.....	7

Zein da nire solaskidea nire zalantzak argitzeko?

- Web orrian [unibertsitate bekei](#) buruzko informazio guztia zehatz-mehatz aurkituko duzu.
- EHUKo, Deustuko edo Mondragon Unibertsitateko ikaslea bazara, zure unibertsitateko beka-zerbitzura joan zaitezke eta han zalantza guztiak argituko dizkizute.
- Herritarrari arreta emateko zerbitzu orokorraren gisa, Zuzenean Zerbitzua (012 edo 945-018000 telefonoa) da zure erreferentzia.
- Zure zalantzak uni.ikasketak@euskadi.eus helbidera bidali ditzakezu

Internet-eko zein software /nabigatzaile erabili behar dut?

Mozilla Firefox nabigatzailearekin eta Windows ingurune batean, edozein bertsiotan, diseinatuta eta optimizatuta dago aplikazioa.. Ordenagailuan doan deskargatu eta instalatu ahal izango duzu. Google Chrome ere erabil dezakezu.

Zein erabiltzaile eta pasa-hitz erabili behar ditut

Ikasturte honetatik aurrera, eskabidea elektronikoa da oso-osorik, eta nahitaezkoa da baliozko ziurtagiri elektronikoa bat izatea. Esteka honetan duzu [identifikazio elektronikorako baliagarri diren bitartekoei buruzko informazio guztia](#).

Oraindik ziurtagiririk ez baduzu, [BakQ](#) ateratzea gomendatzen dizugu. Identifikazio elektronikorako bitarteko berri hori oso erraza da erabiltzeko, eta administrazioekin telematikoki harremanetan jartzeko aukera ematen du.

Nola funtzionatzen du BakQ-ek?

Pertsona fisikoak identifikatzeko bitarteko bat da, autentifikaziorako eta sinadura elektronikorako; oso erraza da erabiltzeko, eta ez du euskarri berezirik behar; beraz, edozein gailu elektronikotatik erabil daiteke. Honako hauek osatzen dute:

- Identifikatzaile bat, erabiltzailearen NAN/AIZarekin bat datorrena.
- Pasahitz bat.
- 16 posizioko koordinatu-jokoa (itsasontzi-jokoa)
- Eta ziurtagiri kualifikatu bat gordailu zentralizatu batean, sinadura-egintzetarako balioko duena.

Kontuan izan Bak ez dela baliozkoa eskabidea sinatzeko, BakQ bakarrik. Identifikazio-bide horri buruzko informazio guztia [izenperen](#) webgunean duzu.

Nola lor dezaket BakQ?

Une honetan, ezohiko egoeran gaudenez, BakQ-en ohiko emisio-puntu guztiak ez daude erabilgarri. Jarraian, zentro erabilgarriak zehaztuko dizkizuegu:

a) Unibertsitateak

UPV/EHU	• Errektoreordetza (Gasteiz) • Zubiria Etxea. Sarriko (Bilbo) 9:00 - 12:00 (Tel. 946013737) • Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko baxuak (Leioa) 9:00 - 12:00 (Tel. 946015210) • Kudeaketa Akademikorako Negoziatua, Ignacio Maria Barriola zentroa (Donostia)
Deusto	Laguntza Unibertsitarioa Saila (bekak) (Bilbo)
Mondragon Unibertsitatea	Unibertsitate honetako ikasleek ez dute BakQ atera beharrik, matrikula egiteko duen ziurtagiria (SIA) erabil baitezakete.

b) KZguneak

KZguneak eskuragarri daude Euskadiko udalerri askotan. Hurbilen duzuen KZgunearen benetako egoera ikus dezakezue.

c) Gizarte etxeak eta beste erakunde batzuk

Araba	San Martin gizarte etxea (Gasteiz)					
Bizkaia	- Bizkaiko Foru Aldundia (Bilbo) - Barakaldoko udala (Barakaldo)					
Gipuzkoa	- Gipuzkoako foru Aldundia (Donostia) - San Markos, Urola Erdi eta Urola Garaiko mankomunitateak - Udalak:					
	Andoain	Azkoitia	Eskoriatza	Lizartza	Pasaia	
	Abaltzisketa	Azpeitia	Getaria	Mendaro	Segura	
	Aizarnazabal	Baliarrain	Hernani	Mutiloa	Urnieta	
	Albiztur	Beasain	Hernialde	Mutriku	Usurbil	
	Altzo	Beizama	Hondarribia	Oiartzun	Villabona	
	Amezketia	Bergara	Ibarra	Olaberria	Zaldibia	
	Anoeta	Berrobi	Idiazabal	Oñati	Zerain	
	Aretxabaleta	Bidania-Goiatz	Ikaztegieta	Ordizia	Zestoa	
	Arrasate	Eibar	Larraul	Orendain	Zumaia	
	Asteasu	Elgoibar	Lazkao	Orexa	Zumarraga	
	Astlgarraga	Errenteria	Legorreta	Orio		
	Ataun	Errezil	Lezo	Ormaiztegi		

BakQ badaukat, non eta nola egin behar dut eskaera?

Hezkuntzako [web orrira](#) joan behar duzu, unibertsitateko beken gunera. "**Eskabidea eskuratzea**" sakatu behar duzu, eta zure ziurtagiri elektronikoarekin identifikatu. Hortik aurrera, urrats hauek egin behar dituzu:

- ✓ Eskabide berri bat sortzea
- ✓ Aurreko ikasturtean beka eskatu bazenuen, aurreko eskabideko senide guztien datuak kopiatzeko aukera erabiltzea gomendatzen dizugu. Ondoren, editatu, ezabatu edo gehitu ahal izango duzu, baina nortasun-agiriekin akatsak eta arazoak saihestuko dituzu.
- ✓ Fitxa guztiak datu pertsonalekin, familiakoekin eta akademikoekin osatzea
- ✓ Zure espedienteari erantsi eskabide-inprimakian zehaztutako nahitaezko dokumentu guztiak.
- ✓ Eskabidea sinatzea
- ✓ Egiaztagiri bat deskargatu eskaeraren aurkezpen-datarekin

Zure ziurtagiri digitalarekin sinatu ondoren, eskabidea behar bezala aurkeztu da, eta ez da beharrezkoa inon paperezko dokumentaziorik aurkeztea.

Eskaera egiten ari naiz, baina ez dauzkat nahitaezko dokumentu guztiak.

Amaitu dezaket?

Bai, eskaera amaitu dezakezu, nahiz eta nahitaezko dokumentu guztiak erantsi ez. Eskuragarri dituzunean, edozein unetan igo ahal izango dituzu zure espedientera, "Dokumentuak aldatzea/aurkeztea" fitxaren bidez.

Ez badituzu aurkezten zure eskabidea izapidetu aurretik, jakinarazpen elektroniko bat bidaliko zaizu dokumentu horiek eskatzeko, eta 10 egun balioduneko epea izango duzu zure espedientera igotzeko. Horretarako, zure ziurtagiri elektronikoarekin identifikatu eta sinatu beharko duzu.

On-line eskaera betetzen ari naiz, baina arazo teknikoak ditut. Norengana jotzen dut?

- Lehenik eta behin, ziurtatu Firefox Mozilla nabigatzailea erabiltzen ari zarela, aplikazioak arazoak sor baititzake beste nabigatzaile batzuekin.
- Arazoa hori ez bada, saia zaitez eskaera beste une batean egiten, batzuetan beken aplikazioa blokeatu egin baitaiteke.
- Azkenik, Zuzenean Zerbitzura dei dezakezu (012), arazoa zein den egiazta diezazuten. Ezin badute konpondu, zure deia Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzara desbideratuko da.
- Mezu elektroniko bat ere bidal dezakezu helbide honetara: uni.ikasketak@euskadi.eus

Nor sartu behar dut nire elkarbizitza-unitatean?

Ondorengo arauak kontuan izan behar dituzu:

- **Zure bizikidetzta-unitateko kide denak jarri**, errolda kolektiboan azaltzen diren bezala 2019ko abenduaren 31(a)n, zurekin bizi ez arren.
- **Dibortzioaren kasuetan**, derrigorrean sartu behar dira aita eta amaren datu pertsonalak, eskatzailearekin erroldatuta egon ez arren. Kasu horretan, ezinbestean aurkeztu behar dira dibortzioaren sententzia eta hitzarmen arautzailea.
- **Ez ahaztu kide guztien datu guztiak osatzea**, eskatzailearen barne (egoera zibila, desgaitasuna etabar bezalakoak). Gehitu, editatu eta ezabatu aukerak dituzu.
- Ez ahaztu hau: unibertsitate- edo goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko **beka eskatu duen anaia-arrebaren bat** baduzu, adieraz ezazu, behar den dedukzioa aplika dadin.

Senideak elkarbizitza-unitatearen erlaitzean altan ematen saiatzen ari naiz, baina akatsa ematen du eta ezin ditut sartu.

Pantailaren testua berriro irakurri eta identifikazio-agiri zuzena (NANa, komunitario europarra edo bizileku-baimena) erabiltzen duzula egiazta ezazu.

Joan den ikasturtean beka eskatu bazenuen, aurreko eskaeran agertzen ziren senide guztien datuak kopiaatzea gomendatzen dizugu. Elkarbizitza-unitatea kopiaatu nahi duzun galdetuko dizu sistemak eta horrek arazo asko saihestuko ditu. Datuak kopiaatu ondoren, zure elkarbizitza-unitatea aldatu bada, izango duzu zirriborrazeko, editatzeko edo beste kide batzuk gehitzeko aukera.

Berrirori saia zaitez eta, akatsak jarraitzen badu, email bat bidali beharko duzu helbide honetara: uni.ikasketak@euskadi.eus, derrigorrean sartu beharreko informazio honekin:

- Zure NIEren edo NANaren kopia eskaneatua, bi aldeetatik.
- Zure izen-deiturak.
- Email-a eta harremanetan jartzeko telefonoa.

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzak egiaztatuko ditu datuak, altan emango ditu senideak eta eskaera bukatu ahal izateko abisu emango dizute.

Ez ditut matrikulatuta nagoen ikasketak aurkitzen.

- Lehenik eta behin, aplikazioan **gradu eta master ofizialak** besterik ez daudela eskura har ezazu kontuan. Unibertsitateen tituluak ez daude, ezin baitira ikasketa mota horretarako bekak eskatu.
- Betiere ibilbide hau jarraitu behar da: **unibertsitatea > campusa> fakultatea /zentroa> matrikulatuta zauden ikasketak.**
- **UPV/EHUren kasuan**, master gehienak dagozkion zentroetan aurkituko dituzu.
- Garrantzitsua da kontuan hartzea aplikazioan ikasketak egiten diren zentroa ez datorrela bat beti eskolak emango diren campusarekin.
- Beka hau ez da Lanbide Heziketako goi-mailako graduentzat.
- **Urrats hauek eman ondoren ez bada ikasketa aurkitzen**, izen ofizial zehatza eta ematen den zentroa zure unibertsitatearekin egiaztatu itzazu. Hau egin ondoren aplikazioan agertzen ez bada, pantailan bertan aukera bat duzu. Han formulario bat zehazten da, ikasketan altan emateko eskaera bat uni.ikasketak@euskadi.eus helbidera bidaltzeko.
 - Zure harremanetarako helbide elektronikoa
 - Zure harremanetarako telefonoa
 - Zure izen-abizenak
 - Ikasketak bertan egingo dituzun ikastetxe edo unibertsitatea
 - Egingo dituzun ikasketak

Eskaera bukatu eta izenpetu eta entregatzeko izenpetu dut, baina datu inportanteren bat aldatu nahi dut. Zer egin behar dut?

Tramitazioaren edozein unetan, eskabidearekin lotutako aldaketa bat komunikatu edo dokumentu berriak erantsi ditzakezu. Horretarako, lehenik eta behin, [zure espedientera](#) sartu beharko duzu eta zure ziurtagiri elektronikoarekin identifikatu.

Dokumentu bat igotzeko edo aldaketaren berri emateko eman beharreko urratsak:

- "Dokumentuak aldatu/aurkeztu" botoian klik egin behar duzu.
- Osatu koadroa zure iruzkinekin eta gorde ezazu.
- "Erantsitako dokumentuak" atalean, aukeratu igo nahi dituzun dokumentuak
- Emaiozu "Erantsi" botoiari eta, ondoren, "Aztertu" eta "Igo".
- Azkenik, sakatu 3. urratsa, aldaketa sinatzeko eta erregistratuta geratzeko.

Zer dokumentu aurkeztu behar ditut beka-eskabidean?

✓ **Eskatzaile guztientzako nahitaezko dokumentuak:**

- Bizikidetza- edo familia-unitatearen ohiko bizilekuaren **errolda kolektiboa**, 2019ko abenduaren 31ko egoera jasotzen duena.
- **Banku-ziurtagiria**, eskatzailearen libretaren edo kontu korrontearen IBAN adierazten duena (titular edo titularkide gisa agertu behar du). Ziurtagiri horren orde, libretaren kopia edo banku elektronikoaren irudia erabil daiteke, non libretaren edo kontu korrontearen titularrak eta IBAN agertzen diren.

✓ **Zirkunstantzia pertsonalen arabera derrigorrezkoak diren dokumentuak:**

- **Zure gurasoak dibortziatuta edo bananduta badaude**, horietako bat zurekin bizi ez bada ere: hitzarmen arauemailearen edota epai judizialaren edota notario-akordioaren kopia, haren baldintza ekonomikoak zehazten dituen.
- Hitzarmen arautzailean ezarritako **mantenu-pentsioa ez ordaintzeagatik demanda judiziala badago**, horri buruzko ebazpen judiziala aurkeztu behar duzu (gaur egungoa).
- Ikasketak direla-eta 2020-2021 ikasturtean ohiko bizilekutik kanpo bizitzeagatik **egoitza-osagaia eskatu nahi baduzu**:
 - **Alokairu-kontratuaren kopia osoa**, eskatzailearen izena, fidantza ordaindu izanaren egiaztagiria eta 2020ko irailetik aurrerako hileko soldata.
 - Ikasleen **egoitzako plaza-erreserbaren ziurtagiria**, kostua adierazita, bai eta lehen hileko soldataren ordainagiria ere.
- **Bizikidetza-unitateko kideren bat desgaituta badago**: desgaitasun-maila aitortzen duen foru-aldundiak emandako ebazpenaren kopia.
- **Eskaera pertsona independente gisa eginez gero** (gurasorik gabe):
 - Alokairuko etxe batean bizi bazara, ohiko etxebizitzaren alokairu-kontratuaren kopia, 2019ko abenduaren 31koa. Etxea jabetzan bada, ez da ezer aurkeztu behar.
 - Emantzipazio-programa batean bazaude, programa kudeatzen duen administrazioaren ziurtagiri baten egiaztagiria.

✓ **Zirkunstantzia akademikoen arabera derrigorrezkoak diren dokumentuak:**

- Nazioko edo nazioarteko mugikortasun-programetan parte hartzen baduzu, zure parte-hartzearen ziurtagiria, datak eta bizilekua adierazita.
- Matrikula partzialaren salbuespena aplikatzea eskatzen baduzu, ikasketak eta lan-jarduera aldi berean egiten direla egiaztatzen duen dokumentazioa (lan-kontratuak, lan-bizitza...).
- Osasun-arrazoiengatik errendimendu akademikoan salbuespena aplikatzea eskatzen baduzu, Osasun Publikoko Sareko espezialistak emandako ziurtagiri medikoa.
- mailako ikaslea bazara eta Batxilergotik sartzen ez bazara, ikasketak egiteko aukera ematen dizun titulazioaren ikasketa-espeditentia aurkeztu beharko duzu, batez besteko nota jasota.
- Euskaditik kanpoko unibertsitateetan edo zentroetan matrikulatutako ikasleak:
 - Egungo ikasturteko matrikularen kopia, ikasketak, matrikulatutako kredituak eta ordaintzen duzun prezioa jasotzen dituenak.
 - Master ofizialerako beka eskatzen baduzu: sarbidea ematen dizuten ikasketen ziurtagiri akademikoa, batez besteko notarekin.
 - mailako ikaslea bazara: unibertsitatara sartzeko oharra jasotzen duen ziurtagiri akademikoa (nau).

✓ **Kasu batzuetan beharrezkoak izan daitezkeen beste dokumentu batzuk:**

- Unibertsitateak berak edo beste erakunde batzuek emandako ikasketa-laguntzen ziurtagiriak.
- Gurasoren batek bere kontura egiten badu jarduera ekonomikoa bere jabetzako lokalen batean, jarduera 2019ko ekitaldi fiskalean higiezin horretan helbideratuta zegoela egiaztatu beharko da.
- Ondasun higiezin batzuen jabetza garbia justifikatzeko, Jabetza Erregistroaren ohar soil bat aurkeztu beharko da, gaur egungoa.
- Kanpo-gurasoaren errolda indibiduala, ondasun higiezinaren guztizko zenbaketatik ohiko bi etxebizitza deskontatu ahal izateko.

Zer epe daukat eskabidea aurkezteko?

Eskabideak aurkezteko epea 2 hilabetekoa da ikasle guztientzat. Abuztuaren 25ean hasi eta urriaren 26an amaitzen da.

Salbuespen gisa, eskatzaileek ikasketak egiten badituzte eta ikasketa horien matrikula-epea aurreko epea amaitu ondoren hasten bada, beka-eskaera matrikula-dataren ondorengo 5 egun baliodunetan egin beharko da. Ez da inola ere onartuko 2020ko abenduaren 31tik aurrerako beka-eskaerarik.

Eskatzaileek 2020ko abenduaren 31 baino geroagoko matrikula-epea duten ikasketak egiten badituzte eta ikasturte honetan ezin badute bekarik eskatu, 2021-2022an eskatu ahal izango dute, betiere ikasketa horien amaiera-data 2022ko ekaina baino lehenagokoa bada.